

# JARDUERA



## Datuak jaso eta sailkatzea

8

### HELBURUAK

- **Ikastetxeko hizkuntzen egoeraren datuak eta hauek hobetzeko proposamenak jasotzea, ondoren, hauen interpretazioa egiteko.**

### prozedura

Hizkuntza Proiektuaren batzordeak aukeratu eta erabilitako galde-sorten bidez bildutako datu eta proposamenak taula batean jaso eta sailkatuko ditu: *Datuak jaso eta sailkatzeko taula*. Taulak hiru atal hauek ditu:

- Ikaslearen hizkuntzaren ingurunea.
- Ikastetxeko hizkuntzaren giroa.
- Hizkuntzen ikas-irakaskuntza ikastetxean.

Ikastetxeek, bakoitzak egin duen datu bilketaren arabera, taularen atal bat edo beste beteko dute. Diagnostiko osoa egin duten ikastetxeek taularen hiru atalak beteko dituzte.

Datuak eta proposamenak jasotzea esaten dugunean, iritziak laburbiltzea esan nahi dugu, hau da, antzeko erantzunak erantzun bakar batean biltzea. Erantzun bakoitza ematen dutenen kopuruaren datua kontuan izatea lagungarri izan daiteke lehenetsuneko jarduerak erabakitzeke.

Datuak sailkatzeko orduan honako hauek izango ditugu kontuan:

- Lehen zutabea, egoerari buruzko datuak.
- Bigarrean, egoera hori hobetzeko proposamenak.
- Azken zutabea, hobetzeko proposamenei ematen zaien lehentasuna jarriko da.

### emaitza | ekoizpena

### denbora | denboralizazioa

Hizkuntza Proiektuaren diagnostikoa egin eta gero, bertan jasotako datu eta hobekuntzarako proposamenak sailkatuta izango ditugu.

Taula honetako bigarren eta hirugarren zutabeetatik (Zer hobetu behar dugu?, Lehentasunak: 1,2,3) abiatuko gara, hurrengo fasean, datuak interpretatu eta ikastetxean antzematen diren lehentasunak ondorioztatzeke.

Bi aste.

### tresnak

### ereduak | edibideak

**8.1. tresna.** Datuak jaso eta sailkatzeko taula | 92. or.

**8.1. adibidea.** Datuen analisia. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua | 125. or.

**8.2. adibidea.** Datuen analisia: Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo-ikasgai ez linguistikoetan | 126. or.